

UDALAK 'HIRIAREN URREZKO DOMINA' EMAN DIO BIZKAIKO ERIZAINEN ELKARGOARI

- **Osoko bilkura berezi batean onetsi da gaur goizean hiriko saririk garrantzitsuena ematea ehunka urteko elkargoari, eta María Jose Garcia Etxaniz elkargoko presidentek "herritarren osasunarekiko, legearekiko eta arau deontologikoekiko konpromisoa" berretsi du.**
- **Juan Mari Aburto Alkateak erizainen eguneroko lanari dagokion "irribarrearen, bestea konprenitzearen eta adetasunaren" balio erantsia nabarmendu du, "gizartearen mesedeko bokazio eta jardunaren eredu garbia".**
- **Era berean, lanbide honetan emakumeak nagusi direla gogoratu ondoren, eskerrak eman dizkio Bizkaiko Erizainen Elkargoari "emakumeak bistartzeko eta mundu osoan erreklamatuak diren profesional bikainen antzera normalizatzeko ahaleginagatik".**

(Bilbon, 2019ko otsailaren 15ean).- Bilboko Udalak, Juan Mari Aburto Alkateak proposatuta eta alderdi politiko guztien aho bateko adostasunaz, Bizkaiko Erizainen Elkargoari Hiriaren Urrezko Domina ematea onartu du gaur, ezohiko udalbatzar berezi baten bidez, gizartearen mesedetan egindako ehun urtetik gorako ibilbide profesional emankorraren aitortuz.

Jendaurreko agerraldian, Juan Mari Aburtok nabarmendu du zeinen axola handikoa den erizainen lana: *"egunero-egunero beren lanari irribarrea, besteen konprenitzea eta adetasuna erantsiz anbulatorio nahiz ospitaleetan, dela adinduentzako, desgaitasunen bat dutenentzako edo mendekotasunean bizi direnentzako etxez etxeko arretan, dela arreta intentsiboetako unitateetan edo bizitzako azken faseetako zainketa aringarrietan".*

Gogoratu du, orobat, nola diren kopuruz emakume gehiago erizaintzan gizonezkoak baino, eta, ondoren, *"gizartearen aldeko bokazio- eta entrega-eredutzat"* jo ditu, eskerrak emanaz Bizkaiko Erizainen Elkargoari *"emakumeak agerira ekartzeagatik mundu osoan eskatzen diren profesional bikainen moduan eta haien egoera normalizatzeagatik"*.

Era berean, alkateak gogorarazi du hirugarren aldia dela agintaldi honetan Udalak Hiriaren Urrezko Domina ematen duena. *"Duela bi urte, Bizkaiko Medikuen Elkargoari sari hau emateko ohorea izan genuen, eta, iaz, Euskaltzaindiari; biak ere ehunka urteko erakundeak, gure hirian tinko errotuak, eta halaxe sartu ziren Hiriaren Urrezko Dominaren bereizgarria jaso duten pertsona ospetsuen eta entitateen zerrenda luzean, hala nola Deustuko Unibertsitatea, Erruki Etxea, Basurtuko Ospitalea, Arte Ederren Museoa, Bilboko Goi-mailako Ingeniaritza Eskola Teknikoa, Bilboko Cocherito Kluba, Athletic Kluba, Bilboko Merkataritza Eskola eta Bilboko Merkataritza Ganbera".*

Maria Jose Garcia Etxanizek, Bizkaiko Erizainen Elkargoaren izenean, berretsi egin du entitateak *"herritarren osasunarekin, legearekin eta arau deontologikoekin duen konpromisoa; duela ehun urte baino gehiago hartu zuen bere gain konpromiso hori, eta espero dugu tinko eustea eta atsedunik gabe hobetzea, egunez egun, geroan ere"*.

Halaber, iragarri du ezen *"doako prestakuntza eta sustapen-ikastaroak eskainiko dituztela herritar ororentzat, osasun-intereseko hainbat gairen gainean, plataforma teknologiko berritzaile"* baten bitartez. Ekimen hori *"osasunarekiko konpromisoari"* zor zaio, zeina Bizkaiko Erizainen Elkargoak duela ehun urte baino gehiago hartu baitzuen bere gain.

BIZKAIKO ERIZAINEN ELKARGOIA

Bizkaiko Erizainen Elkargoa zuzenbide publikoko korporazioa da, berezko nortasun juridikoa duena, eta lurralde historikoko 8.500 elkargo-kide baino gehiago ordezkatzeko ditu. Euskadiko lanbide-elkargorik handiena da, eta kideen arteko % 85 baino gehiago emakumeak ditu.

Bizkaiko Erizainen Elkargoaren lehenengo aipamen dokumentala 1904koa da, praktikanteen eta erizainen karrerak arautu ziren urte berekoa. Izan ere, erizaintza praktikanteen, emagineen eta erizainen lanbideen arteko batura besterik ez da, horiexek izan baitziren, medikuekin, zirujauarekin eta osasun arloko beste profesional batzuekin batera, mendez mende gaixoak artatu eta zaintzeaz arduratu zirenak.

1978an eratu zen Bizkaiko Osasun Laguntzaile Teknikoen Elkargoa (OLT), egungo Bizkaiko Erizainen Elkargoaren aurrekaria, hain zuzen; izan ere, 2005ean hartu zuen oraingo izena, estatutu berriak onetsita.

Egoitza Bilboko Rodriguez Arias kalean duela, Bizkaiko Erizainen Elkargoak profesionalen aldeko sustapen eta aitortze jarduerak antolatzen ditu urterik urte, hala nola Vicenta Lopez Echevarria ikerketa-sariak, Erizaintzaren Nazioarteko Eguna (maiatzaren 12a), edo 20 urte baino gehiagoan elkargoko kide izan eta erretiratu diren profesionalen elkargoaren bereizgarria ematea, besteak beste.

Elkargoa arduratzen da, orobat, elkargo kideen jardueraren profesionala arautzeaz, etika eta duintasun profesionala zainduz eta erien eskubideak begiratzen direla ziurtatuz. Orobat elkargoko kideen interesen ordezkaria eta defentsa egiteaz arduratzen da, eta elkarlanean jarduten du hainbat administrazioarekin lanbideari dagozkion gaietan, arreta berezia jarriz intrusismoari.

EL AYUNTAMIENTO HACE ENTREGA DE LA ‘MEDALLA DE ORO DE LA VILLA’ AL COLEGIO DE ENFERMERÍA DE BIZKAIA

- **Un Pleno Extraordinario ha aprobado esta mañana la concesión del máximo galardón de la ciudad a la centenaria entidad, cuya presidenta, María José García Etxaniz, ha reiterado su compromiso “con la salud de los ciudadanos, con la ley y con las normas deontológicas”.**
- **El Alcalde Juan Mari Aburto ha destacado “el valor añadido de la sonrisa, la comprensión y la amabilidad” del trabajo cotidiano de enfermeras y enfermeros, “todo un ejemplo de vocación y entrega en beneficio de la sociedad”.**
- **Asimismo, tras recordar la superioridad numérica de las mujeres en la profesión, ha agradecido al Colegio de Enfermería de Bizkaia “la labor de visibilización y normalización de las mujeres como excelentes profesionales demandadas en el mundo entero”.**

(Bilbao, 15 de febrero de 2019).- El Ayuntamiento de Bilbao, a propuesta del Alcalde Juan Mari Aburto y con la unanimidad de todos los Grupos Municipales, ha aprobado hoy a través de un Pleno Extraordinario la concesión de la Medalla de Oro de la Villa al Colegio de Enfermería de Bizkaia, en reconocimiento por una prolífica trayectoria profesional de más de cien años al servicio de la sociedad.

Durante su alocución, el Alcalde Juan Mari Aburto ha subrayado la importancia del trabajo que diariamente, *“y con el valor añadido de la sonrisa, la comprensión y la amabilidad”*, realizan enfermeras y enfermeros *“tanto en ambulatorios y hospitales, y en la atención domiciliaria a personas mayores, con discapacidad o en situación de dependencia, como en las unidades de cuidados intensivos y en la atención paliativa en las fases finales de la vida”*.

Tras señalar la superioridad numérica de las mujeres en la profesión de enfermería, que ha calificado como *“todo un ejemplo de vocación y entrega en beneficio de la sociedad”*, Aburto ha agradecido al Colegio de Enfermería de Bizkaia *“la labor de visibilización y normalización de las mujeres como excelentes profesionales demandadas en el mundo entero”*.

Asimismo, el Alcalde ha recordado que se trata de la tercera vez en este mandato que el Ayuntamiento concede la Medalla de Oro de la Villa. *“Hace dos años, tuvimos el honor de galardonar al Colegios de Médicos de Bizkaia, y el año pasado a Euskaltzaindia, la Academia de la Lengua Vasca, instituciones centenarias y fertemente enraizadas en nuestra ciudad, que se suman a una larga lista de personalidades y entidades distinguidas con la Medalla de Oro de la Villa, como la Universidad de Deusto, la Casa de*

Misericordia, el Hospital de Basurto, el Museo de Bellas Artes, la Escuela Técnica Superior de Ingeniería de Bilbao, el Club Cocherito de Bilbao, el Athletic Club, la Escuela de Comercio o la Cámara de Comercio de Bilbao”, ha señalado.

En nombre del Colegio de Enfermería de Bizkaia, su Presidenta, María José García Etxaniz, ha reiterado el compromiso de la entidad *“con la salud de los ciudadanos, con la ley y con las normas deontológicas; un compromiso que asumió este colegio hace más de cien años y que esperamos mantener y perfeccionar sin descanso, cada día, en el futuro”.*

Asimismo, García Etxaniz ha anunciado la próxima puesta en marcha de *“una serie de cursos gratuitos de formación y promoción de la salud para la población en general sobre distintos temas de interés sanitario y a través de una plataforma tecnológica innovadora”,* una iniciativa que responde al *“compromiso con la salud”* desde hace más de cien años del Colegio de Enfermería de Bizkaia.

EL COLEGIO DE ENFERMERÍA DE BIZKAIA

El Colegio de Enfermería de Bizkaia es una corporación de derecho público, con personalidad jurídica propia, que agrupa y representa a más de 8.500 colegiados y colegiadas del Territorio Histórico. Es el mayor colegio profesional de Euskadi y más del 85% de las personas colegiadas son mujeres.

La primera mención documental del Colegio de Enfermería de Bizkaia corresponde a 1904, año en que se reguló las carreras de practicantes y enfermeras. De hecho, la profesión de enfermería no es sino la unión de los oficios de practicante, matrona y enfermera, que durante siglos trabajaron codo a codo con los médicos, cirujanos y otros profesionales sanitarios para garantizar la atención y el cuidado de las personas enfermas.

En 1978 se constituyó el Colegio Oficial de Ayudantes Técnicos Sanitarios (ATS) de Bizkaia, antecedente directo del actual Colegio de Enfermería de Bizkaia, que adoptó tal denominación en 2005, con la aprobación de sus nuevos Estatutos.

Con sede en la calle Rodríguez Arias de Bilbao, el Colegio de Enfermería de Bizkaia organiza cada año distintas actividades para la promoción y reconocimiento de sus profesionales, como los premios de investigación Vicenta López Echevarría, el Día Internacional de la Enfermería (12 de mayo), o la entrega de insignias colegiales a los profesionales jubilados con más de 20 años de colegiación, entre otros

El Colegio se encarga también de ordenar la actividad profesional de sus colegiados, velando por la ética y dignidad profesional, así como por el respeto a los derechos de los pacientes. También ostenta la representación y defensa de los intereses de sus colegiados y colabora con distintas administraciones en materias que competen a la profesión, con especial atención a la lucha contra el intrusismo profesional.